# Bestelako Xedapenak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

**6238**

EBAZPENA, 2009ko azaroaren 3koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, «Euskal Gizartearen Egoera» 2009 Saria esleitzen duena.

«Euskal Gizartearen Egoera» Saria ekainaren 11ko 137/1996 Dekretuak sortu zuen, Euskadiko egoera soziopolitikoa aztertzeko. Aurtengo deialdia 2009ko maiatzaren 14ko Ebazpenaren bidez egin zen, eta ebazpen hura 2009ko ekainaren 11ko Ebazpenaren bidez zuzendu zen.

Dekretu horren 5. artikuluan aurreikusitako eta 2009ko irailaren 30eko Ebazpenaren bidez osatutako Epaimahaiak saria esleitzeko proposamena egin zuen, 2009ko azaroaren 2an izandako bileran.

Beraz, saria arautzen duen Dekretuaren 6. artikuluan xedatzen denari men eginez, hauxe

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.–*** 2009ko deialdiari dagokion «Euskal Gizartearen Egoera» Saria, Gorka Rodríguez Herrero jaunak burututako «Los modelos de descentralización y participación ciudadana en el punto de mira: escenarios plurales y resultados complejos» izeneko lanari esleitzea.

***Bigarrena.–*** Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du; hala ere, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erakunde berean hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean. Epeok ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasiko dira kontatzen.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 3a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.

# Otras Disposiciones

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

**6238**

RESOLUCIÓN de 3 de noviembre de 2009, del Secretario General de la Presidencia, de concesión del Premio «Realidad Social Vasca» 2009.

Por Decreto 137/1996, de 11 de junio, se creó el Premio «Realidad Social Vasca» de investigación sobre la realidad sociopolítica de Euskadi, habiéndose realizado la convocatoria para 2009 por Resolución de 14 de mayo de 2009, corregida por Resolución de 11 de junio de 2009.

El Jurado, previsto en el artículo 5 del referido Decreto, cuya composición fue hecha pública por Resolución de 30 de septiembre de 2009, tras reunión celebrada con fecha 2 de noviembre de 2009, ha elevado la oportuna propuesta de adjudicación.

En virtud de lo anterior, y de lo dispuesto en el artículo 6 del Decreto por el que regula el presente premio,

RESUELVO:

***Primero.–*** Conceder el Premio «Realidad Social Vasca», en su convocatoria para 2009, al trabajo «Los modelos de descentralización y participación ciudadana en el punto de mira: escenarios plurales y resultados complejos», cuyo autor es D. Gorka Rodríguez Herrero.

***Segundo.–*** Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, se podrá interponer recurso potestativo de reposición, ante el mismo órgano, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o bien directamente recurso contencioso-administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo, del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, 3 de noviembre de 2009.

El Secretario General de la Presidencia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.